

Aurreko ataletan aitatu denez, gaztea izateak hazkunde ikaragarria ekarri dio unibertsitate honi azken hamabost urte hauetan. Gaztea izateak eta «euskalduna» izan nahiak. Eta erronka horri eutsi nahi badio gizarte honek, finantzaketan bere ondorioak izanen ditu apustuak: irakaskuntzarako eta ikerketarako azpiegitura sendo eta emankor batez hornitu nahi bada unibertsitatea —azpiegitura moldatu ondorenean bere emaitzak kostu txikiagoz eman ditzan—, inbertsioak orain egin beharko dira. Unibertsitatea euskalduna ere izan dadila nahi bada, orain inbertitu beharko dira behar diren guztiak, hemendik urte batzuetara atzerriko unibertsitateekin ere konpetitu dezala nahi den neurrian behintzat. Ikerlariak eta euskal irakasle egokiak eduki nahi baditu herri honek, hasierako urte hauetan inbertsio larriak egin beharko dituzte bertako erakundeek, horretarako behar diren kontrolbide guztiak onartzuz, jakina. Unibertsitate barnetik begiratzuz, ordea, ezinbestekoa, behar-beharrezkoa duena ere zalantzan jartzen zaiolako susmoa hartzen da. Batek badaki ekonomi egoera ez dela on-on horietakoa eta edozein egitasmoren finantzaketarako arazoak egonen direla edozein ertzetatik begiratzen zaiolarik ere. Baina herri baten oinarrian eta etorkizunerako hil ala biziko garrantzia du unibertsitateak, hortixe etorriko baitzaio aurrerapiderako ekarpenik nagusienetako bat. Besteren menpe egonen beharko du, bestela, etorkizun zalantzakor eta luze guztian zehar. □

SOZIOLINGUISTIKA

KIKE AMONARRIZ

EUSKARAREN JARRAIPENA

Hilabete hauetan, soziolinguistika-alorrean mugarri gerta daitezkeen bi argitalpen ezagutu ditugu: «Euskararen jarraipena» batetik eta «Euskara Nafarroan» bestetik.

Lehenaren egilea Xabier Aizpurua izan dugu eta 1991n Euskal Herri osoan burutu zen Azterketa Soziolinguistikoa-ren datuak eskaintzen zaizkigu bertan.

1977an Euskaltzaindiaren enkarguz, SIADECOK burutu zuen Azterketa Soziolinguistikoaz geroztik, ez zen Euskal Herri osoa hartzen zuen tamaina honetako lanik egin.

Nabarmentzekoa da lanaren sustapen eta garapenean hiru lurraldetako administrazioek hartu dutela esku: Eusko Jaurlaritzako HPIN, Nafar Gobernuako HPZN eta Iparraldean Euskal Kultur Erakundea. Aurrera begira garrantzitsua litzateke, ikerketa zehatz honetarako lortu den lankidetzarekin jarraitzea eta lankidetzari hori «corpus» eta «status» mailako beste ihar-deretara zabalduz, lurralde desberdinetako hizkuntz politikak koordinatze eta bateratze aldera jotzea.

Irakurleak prentsan irakurrita jakingo duenez, liburuan euskararen ezagupen, erabilpen eta euskararekiko interes eta jarrerei buruzko informazio zabala jaso daiteke.

Emaitzak ezagutu nahi dituenak liburuan aurki baditzake ere, jakinmina pizteko, azken atalean azaltzen diren ondorioetarik batzuk aipatuko ditugu:

- Hizkuntz egoerari dagokionez, aniztasuna da nagusi Euskal Herrian: adin-multzo, eremu geografiko nahiz beste aldagaien arabera ezagupen-tasetan, jarre retan edo erabilera-proporzioetan, esate baterako.

- Oro har, euskararen aurrerapena handia izan da, bai hiztunen kopuruari dagokionez, bai hedapen geografiko nahiz funtzionalei dagokienez.

- Hizkuntzaren garapenerako, belaunaldiz belaunaldiko transmisioak duen garrantzia nabarmendu da azterketan zehar.

- Euskaraz hitz egiteko aukerak betetzen direnean euskaldun gehienek normalean, euskaraz hitz egiten dute beren artean.

- Faktore sozio-estrukturalak (euskaldunen dentsitatea zonaldean edo harreman-sarean) eta psikolinguistikoak (gaitasun-

-maila, jarrerak,...) dira euskararen erabilera gehien eragiten duten arrazoiak.

- Euskal Herriko biztanle gehienak euskararen erabilera sustatzearen alde daude (batzuen eta besteen artean aldeak handiak izan arren).

- Euskaldunak erabat itxuraldatu dira, beren ezaugarriak eta banaketa geografikoa etengabe aldatzen ari baitira.

Gaur egungo euskararen egoera orokorra ezagutu edo aztertu nahi duenarentzat beraz, ezinbesteko liburua.□

EUSKARA NAFARROAN

Bestalde, argitaratu berria da ere «Euskara Nafarroan» liburua. 1991ko Nafarroako biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuko datu soziolinguistikoak biltzen ditu Francisca Zabaletak atondu duen liburu honek.

1986an argitaratu zen datu-bilduma baino askoz ere multzo osatuagoa kaleratu da oraingo honetan.

Nafarroako euskaldunen (% 10) eta ia-euskaldunen (% 7) ezaugarriak ezagutu ditzakegu, orokorrean eta eskualdeka. Irakurleari oso erabilgarria gertatuko zaion beste atala, udalerrrikako datuak adin-taldeen arabera eskaintzen dituen da.

Datuen azaleko gain-irakurketa eginez, esan genezake, euskaldunak oraindik ere minoria direla Nafarroa osoari dagokionez, eta zer esanik ez eskualde mistoan eta ez-euskaldunean. Bi eskualde hauetan hala ere, euskaldunen kopuruek eta proportzioek gora egin dute, oso erritmo motelean izan arren.

Beste datu argigarri bat: berreskurapen-prozesua Nafarroan, Euskal Autonomi Elkartearen baino beranduago abiatu zen eta erritmo motelagoan doa aurrera.

Nafarroako 3 hizkuntz eskualdeetako egoera bestalde, guztiz desberdina da. Eskualde euskaldunean euskaraz ongi mintzatzen direnak % 61 dira, mistoan % 6 eta ez-euskaldunean azkenik, % 1.

Liburuan aurki genitzakeen hamaika datu interesgarriren artean, esate baterako, oso nabarmen antzeman daitezke hizkuntzen arteko gatazkan, une honetan Nafarroan gertatzen ari diren bi prozesuak:

- Batetik, euskararen galera. Adibidez, Garaioan (137 biztanle), 11 euskaldun daude: 25-50 urte bitartean 2, eta 50 urtetik gora 9. 25 urtetik beherako 40 haur eta gazteen artean ez dago euskaraz ongi mintzatzen denik, 10ek nekez ulertzen duten arren.
- Bestetik berriz, euskararen berreskurapena. Adibidez, Lizarran (12.453 biztanle), 65 urtetik gorakoen artean euskaraz ongi mintzatzen direnak % 2 dira eta 6-11 urtekoen artean berriz % 23.

Datu hauen arabera, Nafarroan dauden 265 udalerrietatik, euskaraz ongi mintzatzen denik ez dutenak 34 dira, eta euskararen inolako ezagupenik ez dutenak (ezta nekez ulertzen duenik ere) 12. 34 udalerrri horietatik, denak 800 biztanle baino gutxiagokoak dira eta 3 alde batera utzita beste 31, 300 baino gutxiago dituztenak.

Hala ere, garbi geratzen da datuotan ere, eskualde guztietan aurrerapenak gertatu diren arren Nafarroako errealitate soziolinguistikoak oso desberdinak direla eta badirela euskarekin ia inolako ukipenik ez duten udalerrri eta zonaldeak.

Euskarak legedia eta babes ofizial mailan Nafarroan ez du oinarritzko minimorik eskuratu eta hutsune horren ondorioak garbi nabari dira emaitzetan, eta Euskal Autonomi Elkartearen aldean, batez ere, berreskurapen-prozesuaren hedadura txikiagoan eta erritmo motelagoan.□

HIK HASI

Ikasteko hamaika gai eta artikuluko jorratzen ditu euskal irakaskuntzaren barruak astindu eta hausnarketarako bideak zabaltzeko nahi dituen aldizkari berriak.

Ongi etorria (eta harpide asko) opa nahi nizkioke lerrootatik aldizkari jaioberriari.□

ZER DA ALFABETATUA IZATEA?

1991ko eroldaren arabera Euskal Autonomi Elkarteko euskaldunen % 68 eta ia-euskaldunen % 64 alfabetatuak ziren, euskaldunen artean beren burua alfabetatugabetzat jotzen zutenak % 9 zirelarik.

Nafarroan datuak makurxeagoak dira: euskaldunen % 57 eta ia-euskaldunen % 39 alfabetatua eta euskaldunen % 16 alfabetatugabea.

Datu hauen aurrean «alfabetatu» kontzeptuaren anbiguotasuna nabarmen azaltzen da:

- Alde batetik harrigarria egiten zaigu, horrenbeste euskaldun eta ia-euskaldun izatea euskaraz ongi irakurri eta idazteko gai.
- Bestetik ordea, ez da egia (ez behintzat gaztelaniarekiko edo frantsesarekiko erabiltzen den zentzu berean) euskaldunen artean horrenbeste (% 9-16 artean) alfabetatugabe dagoenik; gaizki edo ondo, irakurtzen eta idazten bai baitakite.

Euskaraz (baita euskara gai bezala hartu dutenak ere) eskolatu diren haur eta gazteak, alfabetatutzat har daitezke, inolako zalantzarik gabe, nahiz eta erabateko zuzentasun gramatikalik ez lortu izan.

Heldu eta zaharrei dagokienez bestalde, eta beste gauza askoren artean, euskararen idatzizko presentzia publikoari eta komunikabideei esker, euskara irakurtzeko ohiturak zabaldu eta zailtasunak murriztu egin dira (zenbat dira gaur egun «herria» idazteko esan eta hitz hori «h»rik gabe edo «r» kakotxdunarekin idatziko luketen euskaldunak?).

Guzti honekin zera esan nahi dut:

- Euskaraz idatzi eta irakurtzeko gaitasuna izugarri hedatu dela azken urteotan eta «alfabetatugabe integralik» ia ez dela geratzen Euskal Herrian.
- Gutxi direla hala ere, beren iharduera guztiak euskaraz (idatziz eta irakurriz) gara ditzaketen pertsonak.
- Eta beraz, neurria non jartzen den, alfabetatuen kopuruak asko alda daitezkeela.

P roba zuzenik egin ezean beraz, oso kontuz erabili beharko ditugu alfabetatze-mailari buruzko datuak, gertatzen baita ezer gutxi dakienak, erdaraz alfabetatua delako euskaraz ere alfabetatua dela erantzutea, eta EGA titulua eskuratu duenak, oraindik ere asko ikasi behar duelakoan bere burua erdi-alfabetatutzat jotzea.□

EAEKO AUZITEGIAK ETA NOTARITZAK

Ez da kontu berria. Hizkuntz normalizazioa gutxien garatu duten esparru ofizialen artean, beti eta salbuespenik gabe, Justizi Administrazioa aipatu izan baita:

«Aintzat hartu ezean, hizkuntz utzikeria horren ondorioak larriagoak izango dira, batez ere, pertsonaren bizi-hobekuntzara zuzendurik dauden zerbitzuetan (Justizian, Herrizaingoan, Osasun-erakundeetan, etab.)». (Euskararen Aholku Batzordeak 1993an argitaraturiko «Euskararen Politikarako Oinarrizko irizpideak»).

Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 35. artikulua Justizi Administrazioan hizkuntz normalizazioa bideratzeko oinarrizko xedapenak eman zituen:

- Magistratu, Epaikari eta Idazkarien izendapenean euskara ezagutzen dutenei lehentasuna ematea.
- Pertsonala hornitzeko sistemetan euskara ezagutzen dutenei lehentasuna ematea.

Guzti hori horrela izanik ere, egia da Euskal Autonomi Elkarteko auzitegietan hizkuntz normalizazioaren aldeko aurre-
rapausorik ez dela eman. Salbuespen bakarrak, itzultzaileek betetzen dituzten lanpostuak, eta epaile euskaldun eta euskaltzale (gutxi) batzuren lana.

Arazoak bere gordintasun osoan azaldu behar izan du, era gordinegian aukeran («morbo» ukitu batzuk eta gutzi), hedabideetara eta eztabaida publikora pasa ahal izateko.

Abokatu batzuk itzultzaileei, lekukotza faltsua dela eta jar diezazkieten kereilak direla-eta txinpartak sortu dira euskal prentsan.

Garbi dago ordea, arazoa ez dela inondik ere, ez itzultzaileen lana, ez beren kopurua edo gaitasuna. Hizkuntza oinarri eta biltarteko duen iharduera honetan, egoera normalizatzeko dagoen modu bakarra, eztabaidan zehar garbi geratu den bezala, justizi administrazioak euskaraz funtzionatzeko gaitasuna lortzea da.

Dagoeneko 1987an Donostian burutu zen II. Euskal Mundu-Biltzarreko Euskara Biltzarrean, Andres Urrutia Ondarro a-ko notario ezagunak «euskara eta dokumentu notarialak» txostenean honela zioen (geroztik ederki landu du gaia hamaika artikulu eta liburutan):

«Horregaitik gaur zuzenbide munduan protagonista diren hainbat erakunde publiko zein pribaturen euskalduntze prozesuan sartzeaz aparte (...), euskarari «espazio linguistiko-juridiko» berezi bat ekarri behar diogu, berea, gai hauetan inolako laguntzarik gabe (itzulpenik gabe batik bat) gure eginkizunen tresna bihurtu arte».

Helburu hori lotzeko euskararen aldeko indar guztiak elkartu egin behar dira (epaile, abokatu, itzultzaile....) eta ez elkarren aurka jarri, inora ez daramaten eztabaida antzuak alde batera utziz, eta Justizi administrazioaren euskalduntzea helburu izanik estrategia amankomunak landuz.

Gauza beretsua gertatu da notaritzekin. Eginbide notariala euskaraz burutzeko zailtasunak dituztela salatu dute 52 udaletako ordezkariak (tartean EAJ, PSE-EE, HB eta EAko alkateak).

Batzuetan badirudi 15 urte atzera egin dugula.□

ZERUA GOIBEL

Kezka. Kezka da nagusi euskalgintzan. Kezka zabala. Adar eta iturri asko biltzen dituen kezka sakona.

Euskal Komunitate Autonomoan gobernu berria osatzearekin itxaropenari leiho bat zabaldu zion euskalgintzako hamaika

sektorek (administrazioaren barruan eta kanpoan). Ordurarteko dinamikak aldatzea eta zabaldutako lan-ardatzak indarberritzea helburu zutenek itxaropentsu hartu zuten egoera berria.

Hilabeteak joan dira ordea, eta euskalgintzak hurrengo urteetan bizi beharko duen giroa uste baino okerragoa izango ote den beldurra zabaltzen ari da bazterretan.

Aurretik hartutako konpromisuak direla medio, euskarentzat izendatuta zeuden diru-partidek ez dute igoera nabarmenik izan, jaitsi ez direnean. Badirudi, hizkuntz eta kultur politika zuzenduko dituen lan-talde berriak, eskuak ez eta patrikak lotuta aurkitu dituela.

Udal, foru-aldundi eta Nafar gobernurako hauteskundeak ere pasa dira, eta ez dirudi hizkuntz normalizazioari dagokionez, oro har, utzi duten panorama aurrekoa baino hobea izango denik. Izatez gerotan okerragoa, kasu askotan bederen.

Abiapuntuko datu bezala, euskaldunok goimailako agintari euskaldun gutxiago izango dugu aipatu erakundeetan hurrengo lau urteotan. ETB1ean eta Euskadi Irratian behintzat, auke-ra gutxiago hainbat informazio lehen eskutik euskaraz eskaintzeko. Nahiago nuke gainera, hori balitz emaitza horiek utziko duten hizkuntz ondoriorik okerrena.

Giro politikoak ere ez dirudi, euskalgintzaren garapen autonomorako egokiera erraztuko duenik. Nekez (gero eta nekezago) hartuko dute elkar euskalgintzan, politikagintza-mailan espaloi desberdinetan aurrez-aurre (gero eta hurbilago) aurkitzen direnak.

Eta bitartean, honez gero konponduta egongo zirela ziurtzat jotzen zen hainbat gai, oraindik ere pil-pilean... edo kalean.

Giro nahasi honetan euskalgintzak bere indarrak akitzen dituen bitartean, hizkuntz normalizazioaren aurkako hainbat diskurtso zabaltzen eta hedatzen ari da.

Eta gu hemen, beti gu hemen.□